

# BALIO PROPOSAMENA

Gure proiektuaren helburu nagusia beroa gorputz barnean mantentzea da. Horrela, pertsona hozkorrek neguan ez dute ateratzeko arazorik edukiko, bero egongo direlako. Horrekin batera, kapa asko eraman ordez, gauza bakar batekin berotuta egongo dira. Neguan batez ere kamiseta, jertsea eta txamarra eraman ordez sudadera soil batekin gorputzeko tenperatura erregulatzeko aukera ematen du gure produktuak. Abantaila handiena eroso eta arina dela da, hau da, ez du leku handia okupatzen eta ez du pisu handirik.

Gure produktua kualitatiboa dela esan dezakegu, diseinua propioa delako.

Adibide garbiena mendizaleen edo eskiatzaileen kasua da: mendira joaten direnerako erabili dezaketzen jantzia dela iruditzen zaigu; mendi altuetara igotzeko arropa asko jantzi beharra dago hotz handia egiten duelako, eta hori gutxi balitz, motxilan badaezpadako arropa eraman behar dute, inoiz ez baitakite ze egoeratan aurki daitezken. Gure sudaderak arropa asko jantzi gabe bero mantendu ditzake mendizaleak eta eroso ibili motxilan zama handirik eraman gabe.



Beste kasu bat neguan etxean hotza edukitzearena da. Badaude pertsona hozkorrak, eta baita beti beroa dutenak ere. Bi motatakoak elkartzean etor daiteke arazoa. Guk irtenbidea aurkitu diogu horri: hotzez dagoenak sudadera jartzearekin bakarrik lortu dezake nahi duen berotasuna, gainontzekoek berorik pasatu gabe.

Azkenik, hilerokoaren kasua nahi dugu aipatu: neska askok gaizki pasatzen du, tripako eta gerriko mina izaten baitu. Hori saihesteko oso erremedio ona izango litzateke gure sudadera erabiltzea. Egun gogor horietan beroa gorputz barnean edukitzea da nahi izaten den gauza bakarra eta guk egin dugun sudadera honek hori edukitzeko abantaila ematen du.